



## EUSKADIKO 2. OLINPIADA MATEMATIKOA : 2003-04 D.B.H 2. MAILA

### 1. ALDIKO PROBLEMAK

1.- a) Zenbat laukizuzen dago hurrengo irudi bakoitzean?:

1.  2.  3.  4.

b) Zenbat izango dira 10.enean?

Aurki ezazu araua kalkulatzeko eta azaldu.

c) Laukizuzen kopurua "n" izango balitz, orokortu zenezake aurreko araua?


2.  $ACE$  triangelu aldeakidea da,  
dm. leko aldeak dituena.

$B$ ,  $D$  eta  $F$   $ACE$  triangeluaren aldean  
erdiko puntuak dira.

$G$ ,  $H$  eta  $I$   $BDF$  triangeluaren aldean  
erdiko puntuak dira.

$J$ ,  $K$  eta  $L$   $GFI$  triangeluaren aldean  
erdiko puntuak dira.

$ABDE$  laukiaren zein zati da  
marraztutako eremua?



3.- Iñigok astelehenero, asteartero, larunbatero eta igandero gezurra esaten du eta asteko gainontzeko egunetan egia esaten du. Koldok asteazkenero, ostegunero, ostiralero eta larunbatero gezurra esaten du eta asteko gainontzeko egunetan egia esaten du. Egun batean Iñigok esan zuen: "Koldok gaur ez du gezurrik esan". Asteko zein egun zen?. Arrazoitu.

4.- Luzia liburu-azokara joan zen eta 5 €-ko sarrera ordaindu zuen.

Liburu batzuk eta hiztegi bat erosi zituen. Liburuek 84€ balio zuten, eta hiztegia gehitzean, guztira 100€ baino gehiago ziren .

Erosketak 100€ baino gehiago izaten direnetan, %15eko deskontua egiten dute eta gainera, sarrerako prezioa itzultzen dute

Luziak 100€-ko bilete eta 20€-ko bilete batekin ordaindu zuen eta 14,50€ itzuli zizkioten

Zenbat balio zuen hiztegiak?